

FESTAGUNEETAN ETA ASIALDI PRIVATURAKO GUNEETAN INDARKERIA SEXISTARI AURREA HARTU ETA ERANTZUTEKO PROTOKOLOA

1. OINARRIZKO INFORMAZIOA 1.1 GURE KONPROMISOA

1.2 PROTOKOLOA XEHE-XEHE

1.3 NOLA FUNTZIONATZEN DUEN

1.4 NOLA HARTZEN AHAL DEN PARTE

1.5 EGITURA

PRINTZIOAK

HELBURUAK

AGERTOKIAK

SENTSIBILIZAZIOA

KOORDINAZIOA

PERSTAKUNTZA

EGITURAZKO NEURRIAK

2. GEHIAGO JAKIN NAHI DUT 2.1 PRESTAKUNTZA

2.2 GUNEAK BERRIKUSTEA

2.3 AISIALDIRAKO ESKAINA BERRIKUSTEA

1-OINARRIZKO INFORMAZIOA

1.1 GURE KONPROMISOA

Hiriko aisialdiko eragileek elkarlanean sortu dute «Festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan indarkeria sexistari aurrea hartu eta erantzuteko protokoloa», **denondako eskubide berberak bermatzen dituen aisialdi-ereduaren alde egiteko.**

Iruñeko festarako eta gaueko aisialdirako eragileok konpromisoa hartu dugu arlo honetan aldaketa bultzatzeko, eta indarkeria sexistari **aurrea hartzeko, erantzuteko eta koordinaziorako eredu** bat adostu dugu.

Badakigu irtenbidearen parte garela.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

Iruñeko Udalarekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean ari gara gure guneak indarkeriei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnekin hornitzeko, indarkeria pairatzen dutenak babesteko, indarkeria hori erabiltzen dutenei aurre egiteko eta gizarte osoa engaiatu dadin bultzatzeko.

Badakigu, halaber, protokolo hau egin beharreko ibilbidearen zati bat baino ez dela, ibilbide hori luzeagoa dela, eta neurri gehiago hartu beharko direla. Hasteko, gure establezimenduek, langileek eta festarako eta aisialdirako proposamenek indarkeria mota oro gaitzesten dute, eta konpromisoa daukagu denon askatasunean oinarritutako aisialdiko esperientziak eskaintzeko.

Gainera, *Eraso sexistarik gabe, Iruña aske* estrategiaren beste egitasmo batzuen berri ere jakin dezakezu hemen www.pamplona.es

1.2 PROTOKOLOA XEHE-XEHE

PRINTZIPIOAK

- Emakumeen kontrako indarkeria desberdintasuna ardatz duen oinarri sozial eta kultural baten adierazpena da: hau da, gizonak eta emakumeak ez dira berdinak gure gizartean. Benetako berdintasunik ezak esperientziak aldatzen ditu eta arriskuak sortzen ditu emakumeendako.
- Ordena sozial eta kultural horren ondorioz, emakumeek eta gizonak ezberdin bizi dute aisialdiaren esperientzia.
- Uste dugu gure eginkizuna dela sexismoari aurre egitea arlo guztietan, sexismoa eragozteko eta jaien eta gaueko aisialdiaren beste eredu bat sortzen laguntzea: emakume guztien askatasun indibidual eta kolektiboa errespetatzea izan behar du oinarri eredu horrek.
- Festa-giroan egoteak ez du esan nahi eraso sexistak eta sexu-erasoak «saihetsezinak» direla. Ezein ospakizunetan ezin da onartu pertsonen eskubide eta betebeharrak deuseztatzea.
- Indarkeriaren lekuko izan eta esku hartzen denean, lehentasuna kaltetutako emakumeak artatzea, babestea eta haien erabakiak errespetatzea izanen da beti.

HELBURUAK

- Herritarrek, instituzioek eta gizarte mugimenduak indarkeria sexistari eman beharreko erantzun integral bat osatzea.

- Jarraibide komun eta bateratuak eskaintzea eraso sexisten aurrean jokatzeko moduari buruz, erantzun eraginkorra bermatzeko eta emakumea edozein modutan berriz biktimizatzea eragozteko.
- Hiri gisa emakumeen kontrako indarkeria borrokatzeko dugun jarrera irmoa berrestea, hala instituzioena nola gizarte mugimenduen eta gaueko aisialdiko eragileena.
- Emakume guztien askatasun indibidual eta kolektiboan oinarritutako festarako eta gaueko aisialdirako eredia sortzen laguntzea.

AGERTOKIAK

Protokolo honek aintzat hartzen dituen egoeren kudeaketa errazagoa izan dadin, erantzunen bat eskatzen duten bi agertoki ezarri dira. Nolanahi ere, uste dugu egoera guztiak emakumeen askatasunaren aurkako erasoak direla, eta haiek kontrolatzeko mekanismoak. Halako egoera oro erabat gaitzestea da helburua, eta ikusezinak direnak eta horiek dituzten ondorio kaltegarriak ikusaraztea. Halaber, arazo horri irtenbideak bilatu eta gure ekarpena egin nahi diogu denok askatasunez bizi eta gozatu ahal izateko erreferentzia berriak sortzeko ahalegin bateratuari.

1. AGERTOKIA ERASO SEXISTAK

Protokolo honen ondorioetarako, «Eraso Sexistatzat» hartzen dira emakume baten osotasun pertsonalaren eta askatasunaren kontra egiten diren larderiak jokamolde guztiak: irainak, mehatxuak, ukituak (ukituak abusutzat hartzen dira, eta, beraz, sexu-askatasunaren kontrako delituen artean daude), eta uzkurtzera, izutzera, zerbait egitera behartzera, kontrolatzera eta abarretara zuzendutako ekintzak.

1. Behatu eta ikusarazi zeure burua

Erne egon agresibitate- eta zaurgarritasun-egoera posibleak identifikatzeko.

Lokalaren eta bertakoen¹ jarrera identifikatu eta ikusarazi erabilgarri duzun material korporatiboaren bidez.

Gogoratu litekeena dela lantaldeko emakumeek eurek ere eraso sexistak jasatea.

2. Esku hartu

Eraso baten lekuko bazara, gerturatu, aurkeztu zeure burua eta galdetu emakumeari ea ongi dagoen eta laguntza behar duen.

- Laguntza behar duela erantzuten badu, joan harekin toki lasai batera eta bermatu ez dela bakarrik geratzen.
- Ezetz erantzuten badu, azaldu zure esku-hartzea protokolo baten parte dela eta protokolo hori hor dagoela behar duenerako.
- Ez badago ondo, eskaini toki lasai bat bere onera etortzeko, eta ingurukoei abisua eman, edo deitu 112ra edo 092ra.

3. Lagundu

Eskaini laguntza-zerbitzuetara sartzeko (SOS NAFARROA 112) eskuragarri dagoen informazioa, errespetuz eta presiorik gabe. Joaten utzi aurretik, ziurtatu ongi dagoela.

4. Baztertu

Segurtasuneko langileei eskatu erasotzailea edo erasotzaileak identifikatzeko, edo zuk zeuk egin lokalean halakorik ez bada. Sartzea ukatzeko eskubidea erabili erasotzailea lokaletik botatzeko¹.

5. Ebaluatu eta Jakinarazi

Bete gertatutakoaren berri ematen duen fitxa eraso dokumentatzeko eta helbide honetara bidali

 1. Sartzea ukatzeko eskubidearen idazkia jendeak ikusteko moduan eduki behar da, eta horren berri ematea betebehar bat da.

LAGUNTZA TELEFONOEN ZENBAKIAK 24 ORDUKOAK

- **112 SOS NAFARROA (LARRIALDIAK). ARTA-PROTOKOLOA AKTIBATUKO DA, ETA HORREN BITARTEZ ESKUBIDEA DAGO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SANITARIOA, LEGEZKOA (ABOKATUAREN LAGUNTZA SALAKETA JARTZEKO) ETA POLIZIALA ESKATZEKO.**
- **092 UDALTZAINGOA**
- **621690351 - 848 463 999SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA SIAIZ**

2. AGERTOKIA SEXU-ERASOAK

Protokolo honen ondorioetarako, eraso sexisten barnean, **sexu-erasoak** daudenean modu berezian esku hartzen da, baita sexuarekin edo genitalekin lotutako eraso fisikoak daudenean ere, eraso horiek inbasio fisikoarekin (sarketa) egin zein ez.

1. Behatu eta ikusarazi zeure burua

Begi-bistan gertatzea zaila bada ere, erne egon sexu-eraso posibleak identifikatzeko.

Lokalaren eta bertakoen¹ jarrera identifikatu eta ikusarazi erabilgarri duzun material korporatiboaren bidez.

Gogoratu litekeena dela lantaldeko emakumeek eurek ere eraso sexistak jasatea.

¹. Sartzea ukatzeko eskubidearen idazkia jendeak ikusteko moduan eduki behar da, eta horren berri ematea betebehar bat da.

2. Esku hartu

Eraso baten lekuko bazara edo norbaitek eraso baten berri ematen badizu:

- Jakinarazi lokaleko langilea zarela
- Eskaini toki lasai bat
- Zeure gain hartu ardura, eta ez utzi beste inori tartean sartzen
- Utzi erasoja jasan duen emakumeari bere inguruko norbaitek lagunduta egoten, seguru egon dadin.
- Abisua eman lokaleko arduradunari lehenbailehen 112ra edo 092ra deitu dezan.

3. Lagundu

Lasaitasuna eta konfiantza eskaini, enpatiaz jokatu eta ulerkorra izan.

Protokoloaren barruko prestakuntzan ikasitakoa erabili.

4. Ez onartu

Lokalean segurtasuneko langilerik badago, utzi haien esku ustezko erasotzailea edo erasotzaileak identifikatzeko lana.

Halakorik ez badago, eskatu laguntza langileei edo bezeroei, zeure burua eta beste inor arriskuan jarri gabe.

5. Ebaluatu eta Jakinarazi

Bete gertatutakoaren berri ematen duen fitxa erasoja dokumentatzeko, eta helbide honetara bidali

LAGUNTZA TELEFONOEN ZENBAKIAK 24 ORDUKOAK

- **112 SOS NAFARROA (LARRIALDIAK). ARTA-PROTOKOLOA AKTIBATUKO DA, ETA HORREN BITARTEZ ESKUBIDEA DAGO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SANITARIOA, LEGEZKOA (ABOKATUAREN LAGUNTZA SALAKETA JARTZEKO) ETA POLIZIALA ESKATZEKO.**
- **092 UDALTZAINGOA**
- **621690351 - 848 463 999SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA SIAIZ**

1.3 NOLA FUNTZIONATZEN DUEN

Protokoloarekin bat egin duten aisialdiko lokal eta esperientzia ez-iraunkorrek konpromisoa hartu eta sinatu dute sensibilizazio-lana egiteko (bezeroekin, talde profesionalarekin eta, oro har, herritarrekin) eta indarkeria sexista atzematen duten egoeretan modu koordinatuan arreta eman eta erantzuteko (protokoloaren printzipioak eta egoerak aplikatuta); halaber, barne-prestakuntzako prozesuak zehaztu dituzte, egiturazko beste zenbait neurri ere bai, eta aisialdirako guneak eta eskaintza berrikusiko dituzte.

SENTSIBILIZAZIOA

1. Establezimenduak konpromisoa hartzen du herritarrak oro har eta bereziki langileak eta bezeroak sensibilizatzeko, portaera positiboak azpimarratuz, denondako errespetuzko aisialdiko erreferentziak sortzen lagunduz, eta egungo aisialdi-ereduari eta horren eraldaketari buruzko hausnarketan aktiboki parte hartuz.
2. Establezimenduak konpromisoa hartzen du protokoloa sinatu dutenek babesten dituzten sensibilizaziorako ekintza bateratuetan parte hartzeko. Halaber, konpromisoa hartzen du eskura dituen hedabideak erabiliz ekintza horiek are gehiago zabaltzeko.
3. Establezimenduak egiten dituen ekintzak eta komunikazioak berrikusi eta egokitzeko konpromisoa hartzen du, aisialdirako eskaintza printzipio hauekin bat datorrela ziurtatzeko: askatasunen errespetua, bazterkeriarik eza, sexismorik ez sustatzea eta emakumeen askatasuna babestea.

KOORDINAZIOA

1. Establezimenduak konpromisoa hartzen du protokoloan ezarritako erantzun-eredu komuna ezartzeko eta konpromiso hori identifikatzeko marka ongi ikusteko moduan erabiltzeko.
2. Establezimenduak konpromisoa hartzen du bere jardueran edo tamainan protokoloari

eragiten dion aldaketarik bada Udalari jakinarazteko (langileak aldatzea, jarduera aldatzea, etab.).

3. Establezimenduak konpromisoa hartzen du protokoloa ezartzearen ondorioz egiten diren salaketetan parte hartzeko gainerako eragileekin batera.

PRESTAKUNTZA

1. Establezimenduak konpromisoa hartzen du protokoloa ezartzeko prestakuntza egokia duten langileak izateko.

— 2-6 langile dituzten lokaletan, gutxienez langile batek protokoloaren inguruko prestakuntza izan behar du, Iruñeko Udalak ziurtatuta, eta gainera, arduraduna izanen da.

— 6-12 langile dituzten lokaletan, gutxienez 2 langilek protokoloaren inguruko prestakuntza izan behar dute, Iruñeko Udalak ziurtatuta, eta horietako bat arduraduna izanen da. Gainera, lokalak konpromisoa hartzen du langileei helarazten dizkien komunikazioetan, eta bereziki langile berriendako direnetan, protokoloaren inguruko prestakuntza biltzen duen materiala sartzeko.

— 12 langile baino gehiago dituzten lokaletan, gutxienez 4 langilek protokoloaren inguruko prestakuntza izan behar dute, Iruñeko Udalak ziurtatuta, eta horietako bat arduraduna izanen da. Gainera, lokalak konpromisoa hartzen du gutxienez urtean behin langileendako prestakuntza-saio bat egiteko protokoloaren inguruan eta eduki hori langile berriak kontratatzeko prozesuetan sartzeko.

2. Establezimenduak konpromisoa hartzen du kontratazioak egiteko orduan lehentasuna emateko protokoloa ezartzeko prestakuntza egin duten hautagaiei.

EGITURAZKO NEURRIAK

1. Establezimenduak konpromisoa hartzen du zerbitzua eskaintzeko erabiltzen dituen eremu fisikoak berrikusteko. Lokalaren deskribapena eta egiten den jarduera oinarri hartuta, konpromisoa hartzen du lokalaren eremu fisikoan dauden arriskuen inguruko auditoretza bat egin eta eguneratuta mantentzeko: sarbideak, argiztapena, larrialdietarako eremuak, «arnasa hartzeko» edo lasaitzeko eremuak, etab. Horretarako, Udalak oinarritzko gida bat eskainiko dio. Udaleko teknikariek aztertuko dute zer epe izanen duen bakoitzak gida hori ezartzeko.

2. Legeak hala behartzen duen kasuetan, establezimenduak ziurtatu beharra dauka Gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak (48.1 eta 48.2 artikulua) agintzen duen sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa

daukala. Legez behartuta ez badago, establezimenduak konpromisoa hartzen du antzeko tresnaren bat eskuratzeko urtebeteren buruan.

Protokolo honetan parte hartzeak esan nahi du ziurtatzen dela establezimenduak lokaleko **eremu fisikoak berrikusi dituela** aisialdirako eskaintza ere berrikusi duela eta langileek beharrezko **prestakuntza dutela** emakumeen aurkako indarkeria atzemateko, hari aurrea hartzeko eta erantzuteko, eta protokoloa sinatzen duten eragile guztiek adostutako jarduketa-esparruaren arabera jokatu duela.

Teknikarien taldeek ziurtatu dute protokoloan parte hartzen duten aisialdirako eta festarako establezimendu, entitate eta enpresa pribatuak behar besteko gaitasuna dutela indarkeria matxista identifikatzeko, biktimei laguntzeko eta halako egoerei erantzuteko lantokian gertatzen badira. Irudi baten bidez identifikatzen eta ziurtatzen da protokoloarekin dugun konpromisoa.

1.4 NOLA HARTZEN AHAL DUZUN PARTE

Protokolo hau tresna bat da, indarkeria sexistari aurrea hartu, biktimei arreta eman eta herritarrak horren inguruan sentsibilizatzeko.

Gaueko aisialdiarekin eta festarekin lotutako eragile guztiei zuzenduta dago.

- Alde batetik, AISIALDIRAKO LOKALEI, TABERNEI ETA KAFETEGIEI, zer tamaina duten eta non dauden aintzat hartu gabe, nagusiki arratsalde eta gauez ematen badute zerbitzua, bai lokalean bertan eta bai toki osagarrietan (terrazak, kanpoko barrak, etab.). Halako lokalen jabeek protokoloari atxikitzea eskatzen ahal dute.
- Bestetik, hainbat modalitatetan (jaialdiak, karpak, kontzertuak, kultur ekintzak, etab.) aldi baterako edo noizbehinkako gaueko aisialdiarekin eta festarekin lotutako jarduerak eskaintzen dituzten enpresa edo gizarte-entitateei. Eremua kudeatzen duenari dagokio protokoloari atxikitzea eta hemen ezarritako baldintzak betetzea.

Protokoloan sartzeko eskatzen duten establezimendu eta jarduera ez-iraunkorrek konpromisoa hartzen dute adostutako baldintzak betetzeko. Hala, identifikatzeko irudia erabiltzen ahalko dute.

Jarraipen Batzordea arduratuko da eskaerak onartzeaz, eta eskaera bakoitzak bi urteko indarraldia izanen du. Berritu ahal izateko, Iruñeko Udalaren Jarraipen Batzordearen Idazkaritza Teknikoak ziurtatu beharko du lokalak edo enpresa sustatzaileak adostutako baldintzak betetzen dituela oraindik ere. Iruñeko Udalaren Idazkaritza Tekniko hori arduratuko da eskaera berritzea egokia den edo ez aztertzeaz eta, baiezkoa bada, Jarraipen Batzordeari jakinarazteaz.

Bestalde, Iruñeko Udalaren teknikarien taldeak eskubidea du ausaz ikuskapenak egiteko ziurtagiriak indarrean dirauen artean.

ESKAERA

Establezimenduaren / jardueraren antolatzailearen eskaera webguneko eskabidearen bidez

AZTERKETA

Teknikarien taldeak aztertuko du ea eskabidea egokia den edo ez. Egokia bada, ibilbide progresiborako prozesua abiatuko da.

Azterketa egiteko, teknikarien taldeak dokumentuak begiratzen ditu, eta zuzeneko kontaktua izaten du eskatzaileekin, prestakuntzaren inguruko baldintzak betetzen direla ziurtatu eta egiturazko neurriak ezartzeko plana aurkezten dutela bermatzeko.

ONESPENA

Jarraipen Batzordeak aztertuko du teknikarien taldeak helarazi dion eskaera. Eskaera ez bada egokitzat jotzen, hori idatziz jaso eta zuzendu beharrekoa zuzentzeko neurriak proposatuko dira.

AKTIBAZIOA

Bi urteko iraupena. Konpromisoak.

BERRITZEA

Bi urtez hartzen ahal da parte protokoloan. Hortik aurrera, teknikarien taldeak aztertuko du kasu bakoitza. Parte-hartzea ez berritzeko proposamena Jarraipen Batzordeak aztertu eta onartuko du.

1.5 EGITURA

Protokolo hau Iruñeko Udalaren, aisialdirako lokal eta elkarten eta mugimendu feministaren arteko elkarlanaren emaitza da.

JARRAIPEN BATZORDEA modu orekatuan osatuta dago, eta Iruñeko Udalaren ordezkariak eta hiriko gaueko aisialdirako eta festarako sektorearen ordezkariak osatzen dute.

Urtean bitan bilduko da gutxienez. Hauek dira batzorde horren eginkizunak:

- Aurkezten zaizkion eskaerak aztertzea, eta, onesten dituzenean, protokoloan sartu izanaren akreditazioa ematea.
- Bilakaera ikuskatzea: altak, berrikuspenak, eskaerak berritzea, etab.
- Emaitzak aztertzea: protokoloa noiz aktibatu den, ebazpenak, lokalen eta parte hartu dutenen datuak biltzea, etab.

- Protokoloa berrikusi eta eguneratzea.
- Beste erakunde publiko eta sozialekin elkarlanean aritzea.

Berdintasuneko Alorrak eginen ditu **IDAZKARITZA TEKNIKOKO** lanak prozesu osoan, eta behar beste informazio helaraziko dio Batzordeari egin beharrekoak egin ditzan.

- Protokoloari atxikitzeko eskaerak, atxikimendua berritzekoak eta gorabeherak aztertzea.
- Ausazko ikuskapenak egitea protokoloa betetzen dela ziurtatzeko.
- Prestakuntzarako laguntza teknikoak ematea: prestakuntza antolatzea, protokoloa betetzen dela bermatzea, ziurtagiriak ematea, etab.
- Txostenak egitea.
- Edukiak eta jarduerak eguneratzea eta bestelako laguntza ematea.

Eginkizun horiek betetzeko, kanpoko Laguntza Teknikoa izanen du: protokoloa aplikatzen eta horren jarraipena egiten lagunduko dio Batzordeari.

2- GEHIAGO JAKIN NAHI DUT

PRESTAKUNTZA

Gure lantaldeak prestakuntza jaso du eta gai da **emakumeen aurkako indarkeria atzemateko eta egoera horietan behar den laguntza eta erantzuna emateko**, emakumeen aurkako indarkeriak esanahiari dagokionez hartzen duen hedadura osoan.

Prestakuntza horren helburua da gaueko aisialdian gertatzen den genero-indarkeria atzemateko, horri aurrea hartzeko eta erantzuteko beharrezkoak diren **ezagutzak eta tresnak** eskuratzea, eta horretarako, denondako seguruak eta inklusiboak diren guneak sortzen ikastea, protokoloan bildutako konpromisoak betetzeko ezagutzak eta tresnak eskuratzearekin bat.

Iruñeko aisialdirako establezimenduren batean edo festarako eskaintzarekin loturiko sektoreko enpresaren batean lan egiten duen adin nagusiko edonork egiten ahal du prestakuntza hori.

Iruñeko Udalak berak antolatu eta sustatzen du prestakuntza, eta aurrez aurreko eta Internet bidezko modalitateak uztartzen ditu.

Prestakuntza egin eta gaingitzen duenak **ziurtagiri** bat eskuratuko du, Iruñeko Udalaren bermearekin. Ziurtagiri hori prestakuntza egin duenaren merezimendu profesionaletan sartuko da.

Gaueko aisialdiko lokaletako arduradunen eta langileen parte-hartzea funtsezkoa da emakumeek bizi duten askatasun-gabeziaren gaineko kontzientzia argia sortzen laguntzeko eta tratatu onen, errespetuaren eta erasoen kontrako gaitzespen sozialaren kultura sustatzeko.

Badakigu emakumeen aurkako indarkeria boterea erabiltzeko modu bat dela eta emakumeen eskubideak eta askatasuna urratzen dituela. Barru-barruraino sartuta dago gure kultur eta gizarte-erakundeetan.

Aisialdiak ez du ordena sozial bat sortzen, erreproduzitu eta handitu baizik, eta gizonendako eta emakumeendako parekide ez den gizarte baten praktika, sinismen, estereotipo eta jokamoldeen eszenaratze bat da; gainera, batzuetan, sexu-erasoak ekartzen dituzten jokamoldeen eszenatoki ere bada.

Jokamolde horiek boterea erabiltzeko modu bat dira: izan eraso sexistak (hitzezko jazarpena, irainak, etab.), izan sexu-eraso larriagoak. Adierazpen horiek guztiek halako indarkeria-continuum bat sortzen dute, eta denak hartu behar dira askatasunaren kontrako eraso gisa. Tematzea edo hitzez jazartzea, besteak beste, jokamolde, sinismen eta estereotipo matxistekin lotzen dira, eta ohikoenak dira aisialdiko testuinguruetan. Horregatik, orain arte normalizat hartu dira eta ikusezinak izan dira.

GUNEAK BERRIKUSTEA

Protokoloko teknikarien taldeak Aisialdirako guneak berrikusteko qida bat sortu du, eta protokoloan parte hartu duten eragileek egoniko egokitzapenatarako oinarria da.

Guneak berrikusteak indarkeriazko egoerak gertatzeko arriskua murrizten du, eta gainera, eragin positiboa du **emakumeen askatasunarekiko errespetuaren pertzepzioan**. Emakumeen mugikortasuna sustatzen du, komunitatean parte hartzea, eta aisialdirako baliabideak eskuratzeko aukera parekidea.

Emakumeen aurkako indarkeria eragozteko diseinatutako gune fisikoen ezaugarri nagusia da **emakumeen segurtasunari, irisgarritasunari eta ahalduntzeari ematen diotela lehentasuna**. Helburua da jazarpena, erasoak edo bestelako indarkeria jasateko arriskuak murriztea. Diseinu inklusiboa eta genero-ikuspegia uztartuta diseinatzen dira, eta indarkeriari aurrea hartzea eta segurtasun-pertzepzioa sustatzen dituzte.

Argiztapen egokia funtsezkoa da horretarako, gehien bat ezkutu samarrean geratu ohi diren pasabideetan (komunak, jantzitegia, eskailerak, etab.). Helburua da lokaletako gune horiek ongi argiztatuta daudela bermatzea, erasorik izan ez dadin eta ikuspena egokia izan dadin. Berrikuspen horietan, lokaletara iristeko edo horietatik ateratzeko ibilbideak ere aztertzen dira: inguruko kaleak, hurbil dauden garraio publikoaren geroak, etab.

Aisialdiko jarduerak egiten diren gunek fisikoak diseinatzeko orduan, protokoloa aktibatzearen ondorioz sortzen diren egoerak aintzat hartu behar dira, hala nola **konfiantzazko guneak** izatea, inork behar badu erabili ahal izateko tokiak alegia.

Gune fisikoak berrikusteko konpromisoa hartzeaz gain, protokoloari atxikitzen zaizkion lokalek hitzematen dute **etengabe eguneratuko** dutela protokoloarekin duten engaiamendua, besteak beste lokalera joan ohi diren emakumeei eta bertako emakume langileei modu aktiboan entzunda, galdeketen bidez edo iradokizunetarako postontzien bidez, zer hobetu daitekeen atzemateko.

ESKAINZA BERRIKUSTEA

Emakumeak ez baztertzea eta giro inklusiboa sortzea bermatu nahi duten gaueko aisialdirako lokalek hainbat alderdi berrikusi behar dituzte, eskaintza eta funtzionamendua kasurako, eta horretarako funtsezkoa da:

- Emakumeendako eremu aske eta seguruak sortzeko duen konpromisoa ikusaraztea, bai **protokoloaren irudiaren** bidez eta bai beste seinale batzuen eta sare sozialen bidez ere.
- **Praktika baztertzaileak ez erabiltzea**, hala nola prezioa generoaren arabera ezartzea (adibidez: “emakumeek, sarrera doan”), emakumeak gauza bihurtzen baitituzte, eta estereotipoak betikotu.
- **Berdintasuna sustatu** eta aniztasuna modu positiboan erakusten duten publizitate-kanpainak eta ekitaldiak diseinatzeko.
- Disko jartzaileak eta **animazioko langileak** prestatzea mezu sexista edo iraingarriak dituen edukirik zabaldu ez dezaten (musika, diskurtsoak edo interakzioak).
- Aniztasuna erakutsi eta goratzen duen eskaintza diseinatzeko **bai musikari eta bai jarduerari** dagokienez. Hona hemen zenbait adibide:
 - Ekitaldien egutegia osatzean, emakume artisten eta eduki-sortzaileen parte-hartzea sustatzea.
 - Jendearen artean interakzioarako dinamika positiboak sustatzea, genero-rol estereotipatuak indartzen ez dituzten lehiaketak edo jarduerak antolatzea kasurako.
 - Genero-berdintasunean eta aniztasunean adituak diren kolektibo eta erakundeekin hitzarmenak egitea elkarrekin kanpainak sortzeko.
 - Hiriko mugimendu feministak antolatutako edo sustatutako kanpaina publikoetan eta jardueretan parte hartzea.

Gaueko aisialdi inklusiboaren alde egiteak eragin positiboa du gizartean, baina ez hori bakarrik: **izen ona ematen dio lokalari**, eta bezeroak askotarikoagoak izaten dira. Aukera bikaina da elkarbizitzaren eta komunitatean errespetuz gozatzearen erreferente bilakatzeko.